

# LETICIA VARELA:

## “Gure bi Herrien kultur loturak estutu ditugu Euskalerrian”

Amaia OLKOTZ



Maiatzaren 12ko arratsalde euritsu batean iritsi ziren Donostiara, hiru egun lehenago hasi zuten bidaiak neketsu eta asaldatuaren helmugara. Makina bat eskala, ordu aldaketa, autobus eta hegazkin jasan ondoren, Mexikoko estatu lehor hartatik heldu zitzaizkigun lagunei siri-miri gozo bat hurbildu zitzairen diosala egitera. Hura izan zen errenteriar eta hermosillotarren arteko adiskidetasunaren hasiera. Musikaste medio, astebetetz eduki ditugu geure artean Sonorako Hermosilloko Emiliana de Zubeldia Koruaren kideak. Musikastek omenaldi bat eskeini nahi izan dio aurtengoan koru honen sortzaile izan zen Emiliana de Zubeldia Inda musikagile nafarrari eta gizon-ema-kume mexikar hauek izan dira aipatuaren lekuko.

Hurrengo lerroetan adierazi koruaren zuzendari den Leticia Varelaekin izandako elkar hizketa papereratu nahi izan dugu. Ez dugu, ez, Emiliana de Zubeldia edo eta musikari buruz aipamen nabarmenik egingo, horietaz hitz eta pitz egin baitu Leticia Euskalerrian eman dituen egunetan. Beraien herriaz, hemengo egonaldiaz eta abar ihardun dugu. Hona bada, bere doinu mexikar goxoaz kontatu diguna.

**LETICIA:** Dakizuenez, gu Mexikoko ifar-sartaldeko estatu batetik gatoz, Sonoratik. Leku hau beroa da oso. Californiako itsasgolkoan gaude Estatu Batuekin mugan.

**OARSO:** Handia al da EE BB-ek zuengan kulturalki duten eragina?

**L:** Tira, ez dut uste. Azaleko gauzetan baliteke (jazkera, kirolak, hainbat elikagai), baina zuek hemen duzuenaren antzekoa dela esan dezakegu.

Hizkeran ere nabari da ezer, erabiltzen baitugu zenbait maila. Dena den, azken hauei “pochismos” deitzen diegu, eta esaten dituztenei “pochos”. Gainerakoan, kultur presentzia honokoa litzateke: %60 tik gora bertako kultura; % 30en bat Europatik ekarria eta %1a edo EE BBtako. Bestetik, zera ere aipatu nahi nuke: Hermosillon, Sonorako hiriburuan, adibidez, euskal abizen piloa dagoela.

**O:** Zeintzu dira egun bertan dituzuen arazorik larrienak?

**L:** Arazorik larriena ekonomikoa da duda-mudarik gabe. Ez dago diru isurtasunik. Azken boladan biztanlegoa oso pobretu da, gutxi batzuren dirutzak areagotu dira soilik. Merkatalgoak eta industriak porrot egin dute. Arazo ekonomiko honek beste-lako arazo ugari ekarri du, jakina, hauen artean kultur bilakaera eragozteak. Bada kultur sustapenerako erakunderik baina aurrekontu eta diru laguntzak oso murriztu eta mugatu dira. Hala, erakunde pribatuen bultzadaren beharra sortu da eta izan ere, bide honetatik ari dira sortzen arlo orotako kultur balio berri guztiak. Musika mailan dena den, momentuz atzerrira joan beharra dago nabarmendu nahi izanez gero.

**O:** Etorri aurretik ba al zenuten honi buruzko topikorik?

**L:** Ez, ez horixe!

**O:** Eta nolakoak izan dira hemen egin dituzuen egunak? Zer nolako giroa aurkitu duzue?

**L:** Oso gustora ibili gara. Oso harrera goxoa izan dugu eta tratu ezinobea jaso. Ez enuen benetan honelakorik espero. Jendeak bere bihotza zabaltu digu eta oso ongi ulertu diogu elkarri. Eskerrona besterik ez dugu sentitzen, eta lausenguak baino ez dauzkagu herri honentzat.

**O:** Aurkitu al duzue parekotasunik zuen herria eta Euskalerraren artean?



Leticia Varela. Emiliana de Zubeldia Koruaren zuzendaria. Emiliana zenaren ikasle kuttuna eta musikologian Doktoratua.

L: Hara, bizimoduari dagokionez, ezin dut erantzunik eman, batera eta bestera ibili baikara eta ezin izan dugu horretan gehiegi sakondu. Baina nortasun mailan baietz esan behar dut. Herri honen erregionalismo eta tinkotasuna oso ezagunak egin zaizkigu. Arlo horretan antz handia daukagu.

Izan ere, ez da txiripa Sonoran hainbeste euskal abizen izatea. Nabari da guregan sustrai hori. Ez nau beraz harrizten Emiliana de Zubeldia Euskalerrian bezala sentitzeak gure herrian. Berak ere somatu zuen bere sustraia han.

O: Zer iruditu zaizue Musikaste? Eta eskeini zeniguten musika saioa?

L: Oso ongi antolatutako Musikastea delakoan gaude. Herri honetako balioak ezaguterazi eta indarrean jartzen ditu. Eta hori egiteak merezi du. Lan fina deritzot, benetan. Gu hona ekartzeak gure bi herrien lotura sendotu du, eta horrek ase sentierazi digu. Oso poztu gaitu bertan esku hartzeak eta kultur ekintza hau ezagutu ahal izateak.

O: Gertatu al zaizue anekdotarik hemen egon zaretan artean?

L: Ez, ez zaigu zelebrequeria aipagarrikerik gertatu. Haatik, bada txunditurik utzi nauen zerbait: Jaitzen izan garenean, Emiliana de Zubeldiaren sorterrian, Emilianaz zerbait entzun zuen bertako adineko jende asko harriturik geratu da emakume honen itzalaren berri jakitean. Jaitzek herriko alaba bat birraurkitu duela esango nuke.

Guzti honek Emilianak nolabait antolatu duen zerbait ematen du. Egiatan, badirudi aste honetan zehar gertatu zaiguna Emilianak paraturik zeukala.

Ez dakigu azken hau txantxetan dioen ala ez eta hala gertatu ote denentz. Dena den, jakin badakigu Emilianaren gomuta eta lanari esker itsasoaz bestaldeko jende zoragarri hau ezagutu ahal izan duguna eta Leticiak esan bezala gure bi Herrien kultur loturak estutu dituguna. Bejondeiela bada eta hurrena elkar ikusiko dugulako itxaropenaz agurririk beroena egiten diegu.



Maiatzan Erreterian izan diren Mexikoko korduaren kideak.